IRUÑEKO UDALAREN IRISGARRITASUN INTEGRALERAKO UDAL KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA ZIOEN AZALPENA

I

Irisgarritasun unibertsala honela definitzen da: "Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek, zerbitzuek, objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete beharreko baldintza bat da, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modurik autonomo eta naturalenean ulertu, erabili eta praktikatzeko aukera izan dezaten".

Udal-esparruan, izaera hori lortzeko, beharrezkoa da hura osatzen duten eragile guztien arteko zeharkako koordinazioa, bai administrazio-mailan, bai herritarren mailan; hau da, lan-estrategiak ikuspegi integrala behar du. Horregatik, lan- eta koordinazio-dinamikak antolatzeko, Iruñeko Udalaren Irisgarritasun Integralerako Kontseilua eratu behar da, eta erregelamendu bat ezarri behar da.

Herritar gehienek irisgarritasun-neurriak behar dituzte. Horien artean daude desgaitasunen bat duten pertsonak, muga funtzionalak dituzten 65 urtetik gorakoak eta aldi baterako edo inguruabarren araberako mugak dituzten pertsonak. Horrez gain, badira irisgarritasun-neurriek mesede egiten dieten beste talde batzuk ere, hala nola haurrak, zamak edo objektu handiak garraiatzen dituzten pertsonak, haur-orgak erabiltzen dituzten edo beren kargura adingabeak dituzten pertsonak, adinekoen edo desgaitasunen bat dutenen zaintzaileak edo laguntzaileak, ulertzeko edo komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak, etab. Ia herritarren % 100ek jasotzen du neurri horien onura bizitzako uneren batean, dela zahartzean, gaixotzean, lesionatzean edo unean uneko inguruabar pertsonalak direla-eta.

Beraz, esan daiteke irisgarritasun unibertsala ezinbestekoa dela pertsona askorentzat, eta, aldi berean, herritar guztientzat dela onuragarria.

Desgaitasunen bat duten pertsonek modu independentean bizitzeko eta bizitzako alderdi guztietan bete-betean parte hartzeko duten eskubidea guztiz lotuta dago botere publikoek pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzeko irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarrizko baldintza batzuk ezartzeko duten betebeharrarekin.

Iruñeko Udalak urte asko daramatza eraikin, espazio publiko, garraio publiko eta zerbitzuetan irisgarritasuna hobetzeko lanarekin konprometiturik. Konpromiso horri esker, gure hiriko eraikin eta kaleetan hobekuntza-lan ugari gauzatu dira, ekipamenduak erosi dira eta irisgarritasuna gero eta gehiago hartzen da zeharkako premiatzat.

Ibilbide horri jarraipena emanez, 2023an Iruñeko hiriaren Irisgarritasun Integralerako Plan Estrategikoa onetsi zen, Iruñeko udal-mugartean irisgarritasun unibertsala aztertu, kudeatu eta sustatzeko. Planak beste urrats bat egin nahi du orain, uste baitu inguruneen irisgarritasun-

baldintzak hobetuz pertsona guztiendako hobetzen direla baldintza horiek. Paradigma-aldaketa horrek irisgarritasunaren eta desgaitasunaren binomio tradizionala apurtzen du gainera, irisgarritasunaren ikuspegia inguruneetara ez ezik zerbitzuetara ere zabaltzen du, eta horrekin batera, ezartzen du irisgarritasun unibertsala zeharkako kontzeptu estrategikotzat hartu behar delako ikusmoldea.

Iruñeko Irisgarritasun integralerako plan estrategikoaren ildo estrategikoen artean, honako hau dago: 0: "Irisgarritasunaren zeharkakotasuna eta erantzukidetasuna". Horren barruan, 0.1 helburu operatiboa ageri da: "Irisgarritasun Unibertsala. Irizpide Horizontalaren Garapena" izenekoa. Iruña 2030 Hiri Agendako hiri-estrategiaren 01 helburuan, berriz, 0.1.3 ekintza zehazten da: "Iruñeko irisgarritasun integralerako kontseilua eratzea".

Planaren garapenean hauteman da beharrezkoa dela parte hartzea gauzatzeko figura bat sortzea, indarrean den Iruñeko Udalaren Partaidetzarako Erregelamenduarekin bat, sektoreko partaidetza-organoaren izaera esleitzea eta Irisgarritasun Integralerako Kontseilua izena izanen duena.

II

Erregelamendu hau Iruñeko Udalari dagokion erregelamendu-ahalmena erabiliz ematen da, zeina aitortzen baitzaio tokiko araubidearen oinarriak ezartzen dituen legearen 4. artikuluan eta Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 4., 7. eta 324. artikuluetan. Halaber, toki-erakundeek herritarren partaidetzaren arloan dituzten eskumenak oinarri hartuta ematen da erregelamendua, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoa baita Udala, eta herritarrekin harreman handiena duena ere bai.

Iruñeko Udalaren parte-hartze erregelamendu organikoak 5.2 artikuluan xedatzen duenez, Udalaren Osoko Bilkurari dagokio Iruñeko Udalean sortutako partaidetza-organoen funtzionamendu-erregelamendu espezifikoak onestea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan agindutakoa betez, berariaz adierazten da erregulazio hau beharrizan- eta eraginkortasun-printzipioetan oinarrituta dagoela, eta erregelamendu honen interes orokorra Iruñeko udal-mugarteko irisgarritasuna hobetzea dela; horretarako, arlo horretan ordezkaritza duten hainbat elkarte eta kolektiboren parte-hartzea bermatuko da. Erregelamendu hau beharrezkoa da nahi diren helburuak lortzeko.

Arau honek ase nahi den premiari erantzuteko ezinbesteko erregulazioa jasotzen du, eta ez da horri dagokionez eskubideak murrizten dituen neurririk ezartzen. Halaber, koherentea da egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin, eta arau-esparru egonkorra, aurresan daitekeena, integratua, argia eta egiazkoa sortzen du.

Erregelamendu honen edukia prestatzeko, eta gardentasun-printzipioak xedatutakoaren arabera, parte hartzeko prozesu publiko bat ireki zen. Era berean, erregelamenduaren hartzaile

eta interesdun nagusiekin elkarlanean prestatu da. Azkenik, arau efizientea eta eraginkorra da; Erregelamendua aplikatzearen ondorio gisa sor daitezkeen gastuak arlo honetan aurrera eramaten den jarduketa arruntaren barruan sartzen dira, eta haiek arautzeak erraztu egiten du inplikatutako administrazio-zerbitzuen antolakuntza.

III

Erregelamenduak lau titulu ditu: I. tituluan Kontseiluaren xedea, izaera, atxikitzea, eginkizunak eta jarduketa-eremua zehazten dira; II.a kontseiluaren osaerari buruzkoa da; III.a, haren funtzionamenduaren ingurukoa, eta azkenik, IV.ak araudia eta organoan aldaketak egitea ditu hizpide. Azkenik, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

I. TITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Iruñeko Udalaren Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren helburua da Iruñeko irisgarritasun unibertsalaren defentsan lan egiten duten herritarren eta erakunde adierazgarrienen ordezkaritza eta parte-hartzea antolatzea, irisgarritasun integralari buruzko udal-politikak aztertzeko eta elkarrekin lantzeko.

2. artikulua. Izaera eta atxikitzea

Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseilua kide anitzeko organoa da, zehazki, parte-hartze sektorialeko organo aholku-emailea, eta irisgarritasuneko politika publikoak garatzeko eskumena duen alorrari atxikia.

3. artikulua. Eginkizunak

1. Irisgarritasuneko Udal Kontseiluaren eskumenak informazioa bildu eta ematea, Udalaren galderei erantzutea eta proposamenak egitea dira nagusiki, eta, beraz, Kontseiluak egoki jotzen dituen azterketa, proposamen eta iradokizunak egiten ahalko ditu jarrera bateratuak bilatzeko, bai Kontseiluaren beraren ekimenez, bai beste udal-organo batzuek eskatuta.
2. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren eginkizuna haren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lanak koordinatu, antolatu eta bultzatzea da, eta eskumen hauek izanen ditu:

    a) **Informazioa bildu eta ematea.** Irisgarritasunari buruzko udal-politiketan zuzenean eragiten duen guztiari buruzko informazioa jasotzea, batez ere Iruñeko Irisgarritasun Integralerako Plan Estrategikoa gauzatzeari eragiten diona.

b) **Udalaren galderei erantzutea.** Udalaren galderei erantzutea herritarren eta kolektiboen iritziak bertatik bertara ezagutzeko, batez ere irisgarritasun integralaren inguruko jarduketa-proiektuei edo egindako jarduketei buruzko txostenak edo irizpenak egin behar direnean, bai Kontseiluaren beraren ekimenez, bai Udalak hala eskatzen duenean.

c) **Herritarrekin partekatutako kudeaketa**, bai organo eskudunek, Udalekoek betiere, aldez aurretik erabakitako eta onartutako gaietan, bai desgaitasunen bat duten pertsonek bizitza politikoan, kulturalean, ekonomikoan, akademikoan eta sozialean parte har dezaten sustatzeko eta bultzatzeko egokitzat jotzen dituen udal-eremuko neurriak proposatzeko, besteak beste.

3. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan ezarritako eginkizun orokorrez gain, Irisgarritasunerako Udal Kontseiluak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Hirian gauzatzeko irisgarritasun unibertsalari buruzko jarduketa-proposamenak egitea.
b) Eztabaidak, jardunaldiak, ikerketa-lanak eta pertsona guztiendako hiri irisgarriagoa sustatzen laguntzen duen jarduketa oro bultzatzea.
c) Irizpenak edo txostenak egitea irisgarritasun unibertsalarekin zuzenean lotutako arau-proposamenen inguruan.
d) Organo eskudunei jakinaraztea, horren berri izanez gero, udal-esparruan desgaitasunen bat duten pertsonendako eta haien familiendako tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa urratu duen diskriminazio-egoera oro.
e) Kontseiluari laguntzeko beharrezko tresnak eskuratzea, hala nola batzorde iraunkorra edo gai zehatzetarako egokitzat jotzen diren lantaldeak, bai eta horiek osatzen dituzten pertsonak ere.
f) Komunikazioa sustatzea, eta harremanak eta trukeak ezartzea antzeko helburuak dituzten beste administrazio publiko batzuetako erakunde eta organoekin.
g) Aztertzea kontseiluan ordezkatuta ez dauden baina haren eskumen-esparruarekin zerikusia duten pertsonek eta erakundeek aurkezten dizkioten ekimenak eta, hala badagokio, egoki diren neurriak sustatzea.
h) Genero-ikuspegia zeharka txertatzea Kontseiluak garatutako zeregin edo proposamenetan.
i) Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzako erregelamenduan herritarren partaidetzarako organoei aitortutako gainerako eginkizunak.
j) Irisgarritasun unibertsalaren arloan Iruñeko Udalak agintzen dizkion edo arauek esleitzen dizkioten beste eginkizun guztiak.

4. Iruñeko Udalak behar den informazio guztia emanen dio Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluari egotzitako eginkizunak beteko dituela bermatzeko.

4. artikulua. Jarduketa-eremua

Jarduketa-eremua Iruñeko udal-mugartea izanen da, ezertan galarazi gabe bere eginkizunak betetzean beste eremu batean ezartzen ahal dituen harremanak.

5. artikulua. Organoaren iraupena.

Irisgarritasunerako Udal Kontseiluak iraupen mugagabea du, erregelamendu honen 29. artikuluan azaldutako hartan izan ezik.

II. TITULUA
Osaera

6. artikulua. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren osaera

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko kideak izendatzeko, pluraltasun- eta dibertsitate-printzipioak hartuko dira kontuan; zainduko da ahalik eta aniztasunik handiena izan dadin, baita sexu-parekotasuna ere (% 40-60 bitarteko ordezkaritzaz, horrek esan nahi du sexu bereko ordezkarien kopuruak % 40 eta % 60 artekoa izan behar duela), baldin eta bat badator organoaren berezko ezaugarriekin.

2. Honako kide hauek osatuko dute Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseilua:
   - Burua.
   - Buruordea.
   - Idazkaria.
   - Kontseilukideak.

   Horrez gain, Kontseiluaren barruan lantaldeak eta batzorde iraunkorra eratzeko aukera izanen da.

3. Organo horietako buruak eta buruordeak parekideak izanen dira; hau da, kontseiluburua gizonezkoa baldin bada, kontseiluaren buruordea emakumezkoa izanen da, eta alderantziz. Horrela, hurrengo izendapenetan eta ordezkapenetan sexuen arteko oreka eta txandakatzea bermatuko da.

4. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluan ezinbestean parte hartu beharko dute Udalarekin zerikusirik ez dutenek, hau da, zinegotzi, zuzendari edo udal-teknikari ez direnek. Kasu guztietan, zinegotzien eta udal-teknikarien ordezkaritza txikiagoa izanen da kopuruz herritarrena baino.

7. artikulua. Kontseiluburua

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko burua alkatea izanen da, edo hark eskuordetutako zinegotzia (halakoetan, behar bezala izendatu beharko du eskuorde).

2. Kontseiluburuari dagozkio:

   a) Kontseiluaren ordezkari izatea eta hari dagozkion ekintzak betetzea.
   b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deia egitea, eta gai-zerrenda zehaztea.
   c) Bilkuretako buru izatea, eztabaidak moderatzea, arrazoi justifikatuengatik bilkurak bertan behera uztea eta bilkurak amaitzea.
   d) Berdinketak bere botoarekin ebaztea, erabakiak hartzeko.
   e) Unean uneko gonbidapenak egitea.
   f) Aktak sinatzea, idazkaritzako eginkizunak betetzen dituen pertsonarekin batera.
   g) Organoko buru izateak berekin dakartzan beste eginkizun batzuk betetzea.

8. artikulua. Kontseiluaren buruordea

Buruordea Kontseiluaren eratze-bilkuran hautatuko da, hura osatzen duten pertsonen artean.

1. Buruordeari dagozkio:

   a) Kontseiluburua ordeztea, kargua hutsik dagoenean, hura ez dagoenean edo gaixorik dagoenean.
   b) Kontseiluburuak eskuordetzen dizkion beste eginkizun batzuk.

9. artikulua. Idazkaria

1. Irisgarritasunaren arloko eskumenak esleituta dituen alorrean aritzen den teknikari batek eginen ditu idazkari lanak, edo haren eskuordetza duen pertsonak. Bileretan parte hartuko du, eta hitza izanen du, baina botorik ez.

2. Idazkariari dagokio:

   a) Kontseiluburuari laguntzea Kontseiluaren bilkuretarako deia egiten eta gai-zerrenda osatzen.
   b) Bilkuretako aktak egitea, zeinek kontseiluburuaren oniritzia izanen baitute.
   c) Kontseiluaren erabakiak betearaztea.
   d) Kontseiluaren Idazkaritzari berez dagozkionak.

10. artikulua. Kontseilukideak

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko kideek hitza eta botoa izanen dute, honako hauek:

a) Udalbatzan ordezkaritza duten talde politikoen zinegotzi bana, horietako bakoitzak proposaturik. Ondorio horietarako, kontseiluburua ez da bere taldeko ordezkaritzat hartuko.
b) Irisgarritasunaren ardura duen Unitateko arduraduna.
c) Herritarren Partaidetzako udal-teknikari batzuk, eta Kontseiluaren esparruko eta jarduketa-xedeko udal-mailako nahiz udalaz gaindiko teknikari batzuk.
d) Desgaitasunen bat duten pertsonen elkarteetako sei ordezkari, mota bakoitzeko bat (bisuala, entzumenekoa, fisikoa, kognitiboa, psikikoa eta organikoa), elkarteek proposaturik. Elkarteek legez eratuak izan beharko dute, egoitza soziala Iruñean dutenak eta gutxienez 100 bazkide izan beharko dituzte.
e) Haur eta Nerabeen Kontseiluaren sektore-ordezkari bat.
f) Gazteriaren Udal Kontseiluaren sektore-ordezkari bat.
g) Adinekoen Udal Kontseiluaren sektore-ordezkari bat.
h) Kultur Aniztasunaren Foroaren sektore-ordezkari bat.
i) Emakumeen Udal Kontseiluaren sektore-ordezkari bat.
j) LGTBI+ Udal Kontseiluaren sektore-ordezkari bat.
k) Nafarroako Irisgarritasun Unibertsala eta Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseiluaren ordezkari bat.

Halaber, Kontseilua eratzean bi "aulki huts" gordeko dira, lekua izan dezaten hirian pisu espezifikoa duten baina formalki eratuta ez dauden plataformek, elkarte minoritarioek edo izaera puntuala edo aldi baterakoa duten elkarteek. Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsiko du plataforma edo elkarte horiek Kontseiluan sartzea, eta "aulki huts" horiek zenbat denboraz beteko dituzten ere erabakiko du: ezin izanen du bi urte baino gehiago izan, eta gehienez ere beste bi urtez luzatu ahal izanen da parte hartzea. Aulki hutsak hartzen dituzten erakunde horiek ez dira Kontseilua eratzeko orduan ezarritako kide kopuruaren barruan sartuko.

2. Mekanismo batzuk sortuko dira Kontseiluaren behin betiko osaeran gizon eta emakumeen kopurua orekatua dela bermatzeko, 6.3 artikuluan zehazten den moduan.

3. Kontseilukideek egiteko hauek izanen dituzte:

a) Deialdia behar den aurrerapenaz jaso eta aztertzea (bileren gai-zerrenda eta aztertu beharreko gaien agiriak bildu behar ditu).
b) Bileretako eztabaidetan parte hartzea.
c) Botoa emateko beren eskubidea baliatzea, boto partikularra ematea, eta botoaren zergatia azaltzea, arrazoiak emanda.
d) Galde-erreguak egitea.
e) Garaiz lortzea esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko behar duten informazioa, gai-zerrendako gaiei buruzkoa barne.
f) Kontseilukide izateari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

11. artikulua. Kontseilukide ordezkariak

1. Kontseilukide bakoitzak titular finko bat izanen du. Titular bakoitzak ordezko bat izendatzen ahalko du dagokion posturako, ez da beharrezkoa izendatua finkoa izatea, Kontseiluaren bilera batera joatea ezinezkoa zaion kasuetan bere postua bete dezan.

2. Ordezkaritza izateko, elkarteek edo taldeek honako betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatu behar dute:

   a) Legez eratutako elkarteak izatea.
   b) Egoitza soziala Iruñean edukitzea.
   c) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.
   d) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.
   e) Gutxienez 100 bazkide ordezkatzea.

3. Elkarte bakoitzak kontseiluko postu bakarrerako aurkezten ahalko du bere hautagaitza. Elkarte bakoitzak aurkezten duen eskaeran adierazi beharko da zer kontseilukide postutarako aurkezten den, eta ordezkari gisa izendatutako titularraren identifikazio-datuak emanen ditu.

4. Kontseiluburuak aukera izanen du kide baten hautagaitza ez onartzeko, baldin eta elkartearen estatutuetan jasotako helburu eta jardueretatik ez bada ondorioztatzen ordezkatu nahi duen esparru zehatz horretara bideratzen duela bere jarduketa.

5. Kontseilukide guztien postuak beteko ez balira, edo posturen baterako hautagairik ez balego, bete gabe uzten ahalko da.

6. Bazterkeriarekin zerikusia duen arau-hauste edo delituren bat egiteagatik ebazpen irmo baten bidez isun edo zigorren bat jaso duten pertsona juridiko eta fisikoek ezin izanen dute inolaz ere Kontseiluko kide izan.

12. artikulua. Elkarteen edo taldeen ordezkariak hautatzea Kontseiluko kide izateko

1. Baldin elkarteen edo taldeen aldetik kontseiluko kide izateko hautagaien kopurua handiagoa bada aukeran diren kontseilukide postuak baino, bilera bat eginen da ordezkariak hautatzeko. Bilera horretan parte hartuko dute kontseilukide postu bererako hautagaitzak aurkeztu dituzten entitateek. Irisgarritasun integraleko gaietako eskumenak esleiturik dituen alorreko pertsona batek idatziko du bilera horren akta. Gehiengoa ados dagoela aukeratuko dira hautagaiak.

2. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko kide izan nahi duten entitateek bi izangai izendatu beharko dituzte; horietako batek gutxienez emakumea izan beharko du, salbu eta entitatearen jarduera-eremua espezifikoa izateagatik horretarako aukerarik ez

badago. Berdintasunerako Ordenantzak eskatzen duen parekidetasuna bete dadin, zozketa bidez zehaztuko da eremu bakoitzak Kontseiluan izanen duen ordezkaria zer sexutakoa izanen den.

3. Sektore-eremu baten ordezkari gisa kontseilukide postua duen horrek konpromisoa hartzen du sektoreko gainerako erakundeekin harremana izateko sektoreko ordezkari den bitartean. Hala, besteen ekarpenak eta proposamenak bildu beharko ditu Kontseiluaren bilerak egin baino lehen, eta bileren ondoren, haietan hitz egindako gaien eta akordioen berri eman behar die.

13. artikulua. Kontseilukideak izendatzea

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseilua eratzeko orduan, alkatearen ebazpen bidez onetsiko da kideen izendapena.

2. Gerora sartzen diren kideak eta ordezkapenak eginen dituztenak Kontseiluko buruak izendatuko ditu.

14. artikulua. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko kide izateari uzteko arrazoiak

1. Arrazoi hauek tarteko utziko diote kontseilukideek Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluko kide izateari:

   a) Dimisioa eman izana.
   b) Hil izana.
   c) Hautatuak izan ziren unean kide zireneko elkarte, entitate edo erakundeko kide izateari utzi izana.
   d) Agintaldia amaitzea.
   e) Ordezkatzen duten erakundeak edo entitateak proposatzea.
   f) Hautatuak izan ziren unean kide zireneko elkartea, entitatea edo erakundea desegin izana.
   g) Kontseiluburuak onartutako uko-egitea.
   h) Kontseiluburuak hala erabakita, kontseilukide gehienek proposaturik, elkarren segidako hiru bilkuretara edo elkarren segidakoak ez ziren bost bilkuretara huts egiteagatik izendapenak irauten duen bitartean, edo karguari dagozkion eginkizunak ez betetzeagatik. Ez da aintzat hartuko osasun eta lan arrazoiengatik bilkurara joan ez izana.
   i) Kontseiluaren Osoko Bilkurak hala erabaki izana, norbaitek Iruñeko Udalaren edozein Ordenantzatan jasotako arau-hauste larri edo oso larriren bat egiten duenean, eta, edonola ere, arau-hauste edo delitu astunen bat egiteagatik norbaiti isunen bat edo zigorren bat jarri badiote.

2. Apartatu honetako d), f), h) eta i) letretan adierazitakoez bestelako zioengatik sortutako hutsune guztiak ordezkoek beteko dituzte, eta, edozein kasutan, gainerako kontseilukideen aldi berean amaituko dute kargualdia.

3. Postu hutsak beteko dira erregelamendu honetan kontseilukideak izendatzeko ezarri den prozedura beraren bidez.

15. artikulua. Unean uneko gonbidapenak.

1. Kontseiluaren bileretara joaten ahalko dira unean-unean, hitzarekin baina botorik gabe, kontseiluburuak gonbidatzen dituen norbanakoak eta pertsonak, baldin eta horien parte hartzea interesekotzat jotzen bada.

2. Halaber, Kontseiluaren bileretara joaten ahalko dira, hitzarekin baina botorik gabe, kontseiluburuak gonbidatzen dituen teknikariak, baldin eta gai-zerrendan lantzekoak diren gaien arabera egokitzat jotzen bada.

16. artikulua. Iraupena

1. Kontseiluburuak eta talde politikoen ordezkari gisa kontseilukide direnek postuan jarraituko dute talde politikoen ordezkari diren bitartean, udal agintaldi bakoitzean.

2. Buruordea eta kontseilukideak lau urterako hautatuko dira.

III. TITULUA
Funtzionamendua

17. artikulua. Bilkuren maiztasuna

1. Kontseilua urtean bi bider bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuretan.

2. Kontseiluburuak deituta, haren ekimenez nahiz Kontseilua osatzen duten kideen herenak aldez aurretik eskatuta, bilkura bereziak egiten ahalko dira.

18. artikulua. Deialdia eta gai-zerrenda

1. Deialdian agertuko dira bileraren gai-zerrenda, tokia, data eta ordua, eta Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseilua osatzen dutenei bidali beharko zaie, bilera eguna baino bost egun baliodun lehenago, gutxienez. Premiazko arrazoiengatik, epe hori berrogeita zortzi ordukoa izaten ahalko da. Kasu horretan, premiaren beharra gai-zerrendaren lehen puntuan agertuko da.

2. Gai-zerrenda Udalak edo Udal Kontseiluko kideek proposatuko dute. Kasu horretan, gai-zerrendan sartu nahi diren puntuen proposamenak bilerarako deialdia egin baino, gutxienez ere, bi egun baliodun lehenago helarazi behar zaizkio idazkariari.

3. Deialdiak bitarteko elektroniko bidez igorriko zaizkie Kontseilua osatzen dutenei, eta bertan gai-zerrenda eta deliberatzeko beharrezkoa den dokumentazioa atxikiko zaizkie. Beharrezkoa baldin bada, dokumentazioak desgaitasuna duten pertsonek hartzeko irisgarritasun-irizpideak bete beharko ditu.

4. Beharrezkoa baldin bada, deialdiaren formatua egokitu eginen da, desgaitasunak dituzten pertsonentzat irisgarria izan dadin. Era berean, bermatuko da ezen bilera toki irisgarri batean eginen dela, arkitektura-oztoporik izanen ez duela, eta beharrezkoak diren baliabideak jarriko direla pertsona horiek bilera eginen den tokira irits daitezen.

5. Ageriko premia-kasuetan izan ezik –zeinak nahitaez arrazoitu beharko baitira eta kide anitzeko organoak berak gehiengo osoz berretsi–, ohiko bilkuretan gai-zerrendan sartutako gaiak baino ez dira aztertuko.

19. artikulua. Bilkura eratzea

1. Bilkurak egin, deliberatu eta erabakiak hartzeari begira organoaren eraketa baliozkoa izan dadin, bertan egon beharko dute, edo urrutitik parte hartu, kontseiluburuak eta idazkariak, edo haien ordezkoek, eta organoa osatzen duten kideen erdiek gutxienez.

2. Bileran direnean, dela aurrez aurre dela urrutitik, kide anitzeko organoko kide guztiak edo haien ordez ari direnak kide anitzeko organo gisa modu baliozkoan eratzen ahalko dira bilkurak egiteko, deliberatzeko eta erabakiak hartzeko, aurrez deialdirik egin beharrik gabe, baldin eta kide guztiek horrela erabakitzen badute.

3. Bilkuretan beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira orok bilkura jarraitu eta parte har dezan.

20. artikulua. Ordainsaririk ez

Kontseilura joateak eta bertan parte hartzeak ez du ordainsaririk ekarriko Iruñeko Udalaren aldetik.

21. artikulua. Erabakiak hartzea

Kontseiluaren erabakiak bilkuran daudenen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik baldin bada bozketa errepikatuko da. Berdinketa hautsi ez baldin bada kontseiluburuaren kalitatezko botoak ebatziko du auzia. Gehiengoaren aurka bozkatzen duten kideek beren botoa azaltzen ahalko dute, eta azalpen hori aktan jasoko da.

22. artikulua. Akta

1. Bilkura bakoitzaren akta idatziko da, eta bertan agertuko dira hartutako erabakiak eta landutako gaien zerrenda laburra. Idazkariak eta kontseiluburuak sinatuko dituzte aktak.

2. Akta idaztean irisgarritasun irizpideak beteko dira.

23. artikulua. Irisgarritasun Kontseiluari laguntzeko tresnak

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluari laguntza-tresnak ematen ahalko zaizkio, lantalde eta/edo batzorde iraunkor gisa, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduaren 8. artikuluak adierazten duen bezala.

2. Arreta berezia jarriko da laguntza-tresnetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izan dadin; horretarako, % 40-60ko proportzio aldakorreko ordezkaritza orekatua bermatuko da sexuaren arabera, baldin eta bat badator organoaren berezko ezaugarriekin.

3. Laguntza-tresnek egitura egokia izanen dute sortze-erabakian esleitzen zaizkien eginkizunak beteko dituztela bermatzeko.

4. Irisgarritasun Kontseiluak lantalde iraunkor bat izanen du desgaitasunaren arloko gaiak lantzeko.

24. artikulua. Desgaitasunaren arloko lantalde iraunkorra

1. Izaera. Desgaitasunaren arloko lantalde iraunkorra desgaitasunaren arloko gai zehatzei buruzko azterketa, hausnarketa eta proposamenak egiteko berariazko tresna da. Kontseiluari laguntza ematen dio, eta haren lan-arloarekin lotutako azterlanak eta proposamenak egiten ditu.

2. Xedea. Desgaitasunaren arloko lantaldearen xede nagusia da Kontseiluari laguntzea desgaitasuna duten pertsona guztiak bizitzaren alderdi guztietan gizarteratzen, haien parte-hartze soziala zailtzen duten oztopo guztiak (arkitektonikoak, ekonomikoak, kulturalak, hezkuntzakoak, sozialak, legalak eta abar) ezabatzen lagunduz, eta gaiari buruzko lege-araudia betetzen dela zainduz.

   Funtsezko helburu horrek honako beste helburu espezifiko hauek dakartza Desgaitasunaren arloko lantaldearendako, izaera mugatzailerik gabe, betiere:

   a) Iruñeko udalerrian, bere eskumenen esparruan, ordenamendu juridikoan ezarritako arauak betetzen direla zaintzea, zeinahi administraziok emanak direla ere, bereziki, honako hauek: Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua; Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBEren Konbentzioa; Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko

Lege Orokorraren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea; eta gai horri buruzko gainerako araudia.

b) Elkartasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen arretan erantzukidetasuna areagotzeko.
c) Oztopo arkitektonikoak, sozialak, legalak eta komunikaziokoak ezabatzeko behar diren bideak jartzea, desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzea errazteko.
d) Erakundeei eta partikularrei desgaitasunen bat duten pertsonen problematikaren berri ematea, eta horiek konpontzeko bideak sustatzea.
e) Irisgarritasun Integralerako Kontseiluaren eta desgaitasunen bat duten pertsonen arteko solaskidea izatea haiei eragiten dien guztian.
f) Desgaitasunen bat duten pertsonei sarbidea erraztea kultura-programetara eta enplegurako prestakuntza-programetara, haien laneratzea errazteko.
g) Ekimenak bultzatzea eta babestea herritarren beste kolektibo batzuekin batera.

3. Eginkizunak. Lantalde horren funtzioak dira:

a) Irisgarritasun Kontseiluari aholku ematea desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboarekin lotutako gaietan.
b) Irisgarritasun Kontseiluari proposatzea, zehazten diren bideen bitartez, honako hauek:
   i. Desgaitasunen bat duten pertsonen asoziazionismoa eta parte-hartzea sustatzeko eta indartzeko egoki jotzen dituen neurriak.
   ii. Udal-eskumenen barruan, desgaitasunen bat duten pertsonen ongizatea hobetzen ahal duten jarduketak egitea.
c) Desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeetatik eta Irisgarritasun Kontseiluaren ekimenez egiten diren proposamenak, ekimenak eta iradokizunak eztabaidatzea.
d) Elkarlanean aritzea azterlanak egin eta programak, proiektuak eta arau-xedapenak egiteko garaian.
e) Mugikortasunarekin eta garraio publikoarekin lotutako ekintzak aztertzea.
f) Iruñeko udalerriko desgaitasunari buruzko urteko txostena egitea eta Irisgarritasun Kontseiluaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
g) Urteko memoria egin eta onestea eta Irisgarritasun Kontseiluaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
h) Aurreko guztiez gain, Kontseiluaren laguntza-tresna gisa eraginkortasunez jardun ahal izateko Kontseiluak agintzen dizkion gainerako guztiak.

4. Osaera

a) Desgaitasunaren Arloko Lantalde Iraunkorra gaian interesa duten pertsonek osatuko dute. Gehienak Irisgarritasun Kontseiluko kideak izanen dira, eta erakundeetako beste ordezkari batzuei eta norbanakoei ere irekia egonen da.

Taldean parte hartu nahi dutenak urtero aurkeztuko dira, eta taldearen osaera Irisgarritasun Kontseiluak zehaztu eta berretsiko du urte bakoitzeko lehen bileran. Horretarako, sexuaren araberako ordezkaritza orekatua bermatuko da, 23.2 artikuluan xedatuari jarraikiz.

b) Taldeak buru bat izanen du, eta hauek izanen dira haren eginkizunak: bilkura zuzentzea, taldeari indarra ematea eta bileretarako deialdia egitea, nahiz eta Irisgarritasun Kontseiluaren buruak beharrezkoa iruditzen zaionean egiten ahal duen taldearen bilkurarako deialdia.

c) Lantaldeko buruaren izendapena Irisgarritasun Kontseiluan adostuko da, beren burua horretarako boluntario aurkezten dutenen artean edo Kontseiluko 4 kidek proposatutakoen artean.

5. Funtzionamendua:

a) Aldizkakotasuna, deialdia eta lan-egitura lantaldeak berak adostuko ditu urteko lehen lan-bilkuran.

b) Bilera bakoitzean akta bat eginen da, eta hor zehaztuko da zenbat lagun joan diren, zer gai eztabaidatu diren eta zer erabaki hartu diren. Behin akta idatzita, Irisgarritasun Kontseiluko idazkariari bidaliko zaio.

c) Aldian-aldian, lantaldeak eginiko lanen eta aurrerapenen berri helaraziko zaio Irisgarritasun Kontseiluari, Kontseiluaren bilkuretan nahiz bilkura horietatik kanpo, kasu horretan idazkariari jakinarazita.

d) Ordainsaririk ez Irisgarritasun Kontseilura joateagatik bezala, Desgaitasunaren Arloko Lantalde Iraunkorrera joateagatik ere ez da ordainsaririk emanen.

e) Irisgarritasun Kontseiluak lantaldeen funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta baliabideak ezarriko ditu, betiere horrek ez badio betebehar ekonomikorik ekartzen Iruñeko Udalari.

f) Irisgarritasun Kontseiluak lantaldeetan aldaketak egiteko eskatzen ahalko du eraginkortasun handiagoa lortu eta aurre egin beharreko premietara hobeki egokitzeko.

25. artikulua. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluak izanen dituen bitartekoak eta baliabideak

1. Iruñeko Udalak Kontseiluari behar beste baliabide material emanen dizkio, dagozkion funtzioak bete ditzan.
   Era berean, arrazoizko egokitzapenak, laguntzak eta doikuntzak eginen ditu, Kontseiluko edozein kidek bilkuretan ahalik eta modu autonomo eta erosoenean parte hartzeko baldintza-berdintasuna bermatzeko.

2. Udaleko teknikari batzuk izendatzen ahalko dira Udal Kontseiluaren edo, hala badagokio, sortzen diren batzordeen batzarretan laguntza-, kudeaketa- eta dinamizazio-lanak egin ditzaten, batzar horiek ongi egiten direla ziurtatzeko.

26. artikulua. Online parte hartzeko gunea.

1. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluak bere txokoa izanen du Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzako plataforma digitalean. Txoko horretan informazioa emanen da, eginbeharren jarraipena eginen da eta informazioa eman eta hartuko da, aurrez aurreko bileren arteko tarteetan. Online txoko hori iraunkorra izanen da, Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluak irauten duen bitartean. Organoa azkentzen baldin bada ere, informazioak plataforma digital horretan jarraituko du, orok jakin dezan organoaren garapena eta bilakaera zein izan den.

2. Era berean, beharrezkoak diren bideak gaituko dira, sare sozialen bitartez, interesa duen orok parte har dezan, Kontseiluaren Osoko Bilkurak ezartzen duen metodologiarekin bat betiere. Bermatu eginen da bide horiek gardenak eta trazagarriak direla, herritarren parte-hartze optimoa bermatzeko eta argi gera dadin inork manipulatu ez duela.

3. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren eta lantaldeen deialdiak eta haien baitan sortutako akta, akordio eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzako plataforma digitalean edo udal-webgunean argitaratuko dira.

IV. TITULUA
Araudia eta hura aldatzea

27. artikulua. Araudi osagarria

Erregelamendu honetan ezarrita ez dagoen guztian, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua aplikatuko da, eta kide anitzeko organoen arautzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legea.

28. artikulua. Erregelamendu hau aldatzea

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurari dagokio, legez emandako eskumenak erabilita, Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren funtzionamendu-erregelamendu hau parte batean edo osorik aldatzea.

29. artikulua. Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren deuseztapena

1. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurari dagokio Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseilua deuseztatzea.

2. Baldin Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluak ez badu bilerarik egin urtean behin gutxienez, Osoko Bilkurak deuseztatzen ahal du, demokrazia parte-hartzailearen tokiko behatokiak aldez aurretik emandako aldeko txostenarekin, motiboak emanda.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Behin erregelamendu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, Irisgarritasun Integralerako Udal Kontseiluaren lehenbiziko deialdia egin baino lehen, hura betez Kontseiluko kideak izendatuko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean, eta Udal Kontseiluaren lehenbiziko bilkuran hartuko dituzte beren eginkizunak nork bere gain. Bilkura horretarako deialdia arau hauen arabera eginen da.

AZKEN XEDAPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoarekin bat, erregelamendu honek ez du ondorio juridikorik sortuko harik eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun balioduneko epea iragan arte, tarte hori baitute Estatuko nahiz Foru Komunitateko administrazioek toki-erakundeei errekeritzeko egintzak eta erabakiak deusezta ditzaten.